

IK

Programazioaren barri zure e-postan jaso gura badozu
deitu 94 673 62 51 telefonora edo bialdu zure datuak (izen-abizenak,
NANA, telefonoa eta e-posta) kulturetxea@igorre.net helbidera.

Aurretiko salmenta BBK-ko orotarako
kutzazainetan



Venta anticipada: en los cajeros
multiservicio de la BBK



Laguntzaileak

Igorreko
Kultur eta Kirol
alkarteak



Bidaiko Foru A Mundu
Diputazio Foral de Bizkaia
kultura SABI
Departamento de Cultura



IGORREko
UDALA

Lasarte Aretoa



IK | IGORRE KULTURA

2019 | Kultur programazioa
URTARRILA-MARTXOA

ZUZENeko IKUSKIZUNAK // ZINEA // ZINEKLUBA
BERDINTASUNA // EUSKERA PLANA
IKASTARoAK // ERAKUSKETAK

// **KULTUR TXARTELA** 04

// **EUSKERA** 05

// **ZUZENEKO IKUSKIZUNAK** 06-17

7 SENIDEKO	PERU ETA OTSOA	DUBLINDARRAK
RUPER ORDORIKA	LUR	SONAKAY

// **ERAKUSKETAK** 18-19

ARRATIA POSTA TXARTELEAN

// **BERDINTASUNA** 20-21

// **IKASTAROAK / CURSOS** 22-23

// **ZINEKLUBA /CINE CLUB** 24-25

GET OUT	ALANIS	120 BATTEMENTS PAR MINUTE
---------	--------	---------------------------

// **ZINEA /CINE** 26-30

EL REGRESO DE BEN	DANTZA	LA FAVORITA
STUBBY, UN HÉROE MUY ESPECIAL	ASTERIX EDABE MAGIKOAREN SEKRETUA	LOS LUNNIS
MI VECINO TOTORO	SPIDERMAN UN NUEVO UNIVERSO	
BOHEMIAN RHAPSODY	EL VICIO DEL PODER	



Lagun txartelaren urteko banakako kuota 30 eurokoa da. Familiakoa

25 euro kide bakoitza eta 20 eurokoa 14 urtetik beherakoentzat.

Lagun txartelaren abanataila eta deskontuak ondokoak dira:

- Ikuskizun guztien sarrera prezioaren %25.
- 4 film dohainik urtean.
- Lasarte Aretoa hautatutako ikuskizun bat dohainik, urtean.
- IKEko ikastaroetan %15eko deskontua.
- Programazino liburuxka etxean jasoko dozue.

La cuota anual del a tarjeta amigo individual es de 30 euros.

4 Para los miembros de la misma familia (mínimo 2) 25 euros y 20 euros para los menores de 14 años.

La ventajas y descuentos de la tarjeta amigo son las siguientes:

- 25% descuento del precio entrada de todos los espectáculos
- 4 películas gratuitas al año.
- Un espectáculo seleccionado por Lasarte Aretoa gratis al año.
- 15% de descuento en la matrícula de los cursillos de IKE.
- Recibiréis la programación cultural en vuestro domicilio.

Kultur Etxeko zerbitzuen ordutegiak:

Udal liburutegia:

Astelehenetik barikura 10:00-13:30 eta 16:00-20:45

KZgunea

Astelehenetik barikura 10:00-20:45

Ikasgelak eta Alkarteen lokalak

Urtean egun guztietan zabalik

* txartela beharrezkoa

BERBALAGUN

Euskeraz berba egiteko aukera ematen duen proiektua.

Berba-talde txikietan, parte hartzaileek erabakitzen dute zein egunetan, non eta ze ordutan elkartu. Adina, zaletasunak eta ordutegia dira taldeak osatzeko irizpide nagusiak.

Astean behin kirola zein irteerak egiteko, kafea hartu edo ipuinak kontatzeko...

Labur esanda, euskera erabiliz euskeraz bizi ahal izateko.

Bazatuz?

Eman izena euskera zerbitzuan.

euskera@igorre.net



94 673 62 51

IGORRE KANTARI KANTU POTE
Datak aurrerago zehaztuko dira



7 SENIDEKO**Artedrama**

Otsailak 2, 20:00
8€ /bazkideak 6€

Anaitasunarena, txikitatik eraikitako laberintoa da, ihesbiderik gabekoa, lotura definitibo bat. Odolekoak ala biziak eskainitakoak, senideak norbanakoa osatzen du. Baina nola aritu anaia, ahizpa, neba edo arreba ebatsia izan zaigunean? Presondegiak, auto istripuak edo aixotasunak bete ezinezko hutsunea sentiarazten duenean, nola dirau gurea dugun GU horrek bizirik?

6 Bi aktore. Bi anaia. Eta zazpi istorio antzerkira ekarriak.

La fraternidad es un laberinto construido desde pequeños, sin escapatoria, una unión definitiva. Sanguínea o surgida por mor de la propia vida, la familia completa al individuo. Pero entonces... ¿cómo actuar cuando se nos ha arrebatado el hermano o la hermana? Cuando la cárcel, el accidente de coche o la enfermedad nos producen un vacío imposible de llenar, ¿cómo se mantiene vivo ese NOSOTROS que nos es nuestro? Dos actores. Dos hermanos. Y siete historias llevadas al teatro.

**Fitxa artistikoa / ficha artística**

Zuzendaritza: Ander Lipus

Eszenografia: Josep Duhau

Aktoreak: Ximun Fuchs, Manex Fuchs

Testigantzak: Lander Garro, Gaizka Sarasola, Lorentxa Beyrie, Aitzaro Arano, Argi

Perurena, Unai Iturriaga, Eñaut Castagnet

Idazkera aholkularia: Igor Elortza

RUPER ORDORIKA

Otsailak 16, 21:30
8€ / bazkideak 6€

Abenduan, zuzeneko diskoa grabatu zuen Kafe Antzokian. Kontzertu haien kroniketan Oñatikoa bikain aritu zela esaten da, eta bere soinuari "americana" ikutua eman ziola. Gau haietako erreperitorioan bat egin zuten Ordorikaren gaur eta atzoko kantu onenetako batzuk: "Ene begiek", "Zaindu maite duzun hori", "Belauniko", "Martin Larralde", "Fas Fatum", "Zerutik gertu ez da ondo egoten", "Ez da posible"... Horregatik, Igorrera ekartzeko irrikitan ginen: euskal musikagintzaren zutabe bat, bere onenean, musikari ikaragarri inguratuta, eta bere onenak ematen. Ezin duzu galdu.



En diciembre grabó un disco en directo en el Kafe Antzokia. Las crónicas de aquellos conciertos dicen que el de Oñati estuvo brillante, y que le dió un punto de "americana" a su sonido. En el repertorio de aquellas noches se unieron algunas de las mejores canciones de Ordorika, de ayer y de hoy: "Ene begiek", "Zaindu maite duzun hori", "Belauniko", "Martin Larralde", "Fas Fatum", "Zerutik gertu ez da ondo egoten", "Ez da posible"... Por todo ello, estábamos deseando traer a Igorre, a uno de los puntales de la música vasca, en su mejor momento, rodeado de músicos magníficos, dando lo mejor de sí. No te lo puedes perder.



PERU ETA OTSOA**Didau Antzerki faktoria**

Otsailak 22, 17:30
5€ / bazkideak 3,75€

Peru eta Otsoa, Serguéi Prokófiev-ek 1936an idatzi zuen ipuin musikatua da. Musikari ukrainiar honen ideia, musika sinfonikoa haurrei modu dibertigarri batean hurbiltzea zen eta honela egin zituen konposizio musikatua eta ipuinaren moldaketa ere. Ipuin errusiar bateko pertsonaiak hartu zituen eta bakoitzari instrumentu bat egokitu zion errepresentazio modura. Honela, Peru, orkestrako hari-instrumentuen bidez azalduko zaigu, txori txikia zeharkako txirula izango da, zoritxarreko ahatea oboea, katu zuhurra klarinete goxoa, aitona, beti marmarrean fagota, basoan bizi den otso handia tronpak eta basoan errondan dabiltzan ehiztariak tinbalak eta bonboa. Eszenatokian zuhaitz eder bat eta gramofono zahar baten laguntzarekin ipuina kontatuko diguten bi pertsonai celebren. Peru eta otsoa, haurrentzako ipuin sinfonikoen jatorria, atemporal eta haurrentzat egin den sinfonia garrantzitsuena, oraingoan DIDAU antzerki taldearen bertsio berezian.

El cuento musical atemporal y dirigido a niños de todas las edades "Pedro y el lobo" compuesto por el músico ruso Serguéi Prokófiev, en una versión singular de la mano de DIDAU Antzerki Faktoria. En el escenario, un gran árbol, un viejo gramófono y objetos de todo tipo en los que se apoyarán nuestros dos protagonistas para deleitarnos con la sinfonía infantil más importante jamás compuesta.



LUR**Xake Produzkoak**

Martxoak 8, 17:30
5€ / bazkideak 3,75€

Julian jostailu denda zahar baten jabe da. Egun gutxi barru Ane, bere bilobak, zortzi urte beteko ditu eta opari berezi bat prestatzen ari zaio; berarentzat propio egindako panpina. Ane eta Julianek bidaia zirrarragarri bat hasiko dute panpinarekin batera, desioak betetzen dituen izar magikoaren bila. Itxuraz abentura irudimentsua dirudienak Ane eta bere aitaren arteko harremana berbideratzen lagunduko du. Izan ere, azken aldian, aitak onarpen arazo bat dauka, Ane mutila delako.

Julián es el propietario de una tienda de juguetes. Dentro de unos días, su nieto Ane, cumplirá 8 años y le está preparando un regalo muy especial; un muñeco hecho expresamente para él. Ane, Julián y el muñeco emprenderán un viaje maravilloso en busca de la estrella mágica, que terminará siendo un camino para reconducir la relación entre Ane y su padre, Jon, ya que Jon tiene un problema de aceptación porque Ane es un niño.

Chrysalis Euskal Herria elkarte:

“Lur” antzezlanaren ZORAGARRIA da. ZO-RA-GA-RR-I-A.

Barre egin genuen, negar egin genuen, goitik bera hunkitu gintuen.

“Lur” antzezlanaren protagonista bulba duen mutila da. Eta arduradunek oso egoki publikoki adierazi duten bezala antzezlanaren gaia ez da hainbeste haur transexualitatea, baizik eta norbera den bezala maitatua eta onartua izatearen beharra (...) Eta barneak mugitu zizkigun guri, bai, gure elkarteko familietako bizipen asko oso modu zehatz eta argian islatzea lortu dutelako taularatutako istorioan.. Hori dena gutxi balitz, XAKE Produzkoak taldekoek magia egin dute, bai txikiek eta bai handiek gozatuko duten ikuskizuna sortuz. Aukera baduzue, ez galdu harribitxi hau!”



DUBLINDARRAK**Ados Teatroa**

Martxoak 16, 20:00
8€ / Bazkideak 6€

Dublindarrak (Dubliners), James Joycen kontakizun simple baina sakona da, bizitzaren suntsikortasuna, gazte garaiko maitasun galduak eta oroimin eta iruzurrak zikindutako bizitza batzuen inguruan. Dublinen kokatzen da, 1904. urteko Errege egunean. Adin eta sexu desberdineko maila ertain-altuko pertsonaia batzuk Morkan andereñoek bere egoitzan urtero antolatzen duten afarira iristen dira. Giroa ezin hobea da. Kanpoan elurra ari du baina barruan etxe-giro goxoa, janari atsegingarria, ohitura onak, lasaitasuna, anaitasuna eta umore ona arnasten dira. Itxuraz sinplea den kontakizunak, sakonean, Irlandak garai hartan bizi zuen parálisi moral eta espirituala dauka mintzagai. Hildakoak ez dira hilik daudenak soilik, pasioz bizitzen jakin ez dutenak, jolas eta limurtzetan galdu direnak eta beren mundua erori eta erremediorik gabe atzetik erori direnak baizik.

Lan paregabean, literatura unibertsalaren historiako kontakizun onenetako bat.

En Dublineses (Dubliners), James Joyce establece un relato, tan sencillo como profundo, sobre lo efímero de la vida, sobre el amor perdido de la juventud, y sobre unas vidas corrompidas por la nostalgia y el engaño. Se sitúa en Dublín, el día de Reyes de 1904. Una serie de personajes de distintas edades y sexos de clase media-alta acuden a una cena que las señoritas Morkan ofrecen todos los años en su casa. La atmósfera es ideal. Fuera nieva y dentro de la casa se respira hogar, deliciosa cocina, buenas costumbres, tranquilidad, fraternidad y buen humor. El tema velado tras la aparente sencillez del relato es la parálisis moral y espiritual de la Irlanda de la época. Los muertos no son sólo aquellos que están realmente muertos, sino también, aquellos que no han sabido vivir con pasión, que no han sabido discernir, perdidos en juegos y galanteos, que su mundo se desmorona y les arrastra sin remedio en su caída. Una obra maestra, de los mejores relatos de la literatura universal.

**Fitxa artistikoa / ficha artística**

Zuzendaritza: Garbi Losada

Egokitzapena: Jose Antonio Vitoria, Garbi Losada

Aktoreak: Asier Hormaza, Naiara Arnedo, Lierni Fresnedo, Iñake Irastorza, Klara Mendizabal, Isidoro Fernandez, Aitor Beltrán, Asier Sota

SONAKAY

Martxoak 23, 21:30
8€ / bazkideak 6€

Zur eta lur utzi zuten mundu guztia, Telecinco-ko "Got Talent" saioan, "Txoria txori" kantua moldaketa flamenkoa egin zutenean, publiko eta epaimahaiaren txaloak lortuz. Orduz geroztik, disko bat argitaratu dute, "Sonakay denontzat", zeinetan, kantu propioez gain, lau euskal kanturen moldaketak aurkitu daitezke: Benito Lertxundi-ren "Loretsoa", Urko-ren "Lehenengo ikasgaia", Pier Paul Berzaitz-en "Denborareki" eta, arestian aipatutako Mikel Laboa-ren "Txoria txori". Izan ere, donostiar hauek ijitoak eta euskalherriarrak izateaz harro daude, eta eurentzat arima bi hauek uztartzea naturala da. Eta, bai, integrazio adibide bat dira, baina, batez ere, musikari trebeak dira eta gozamina da hauek entzutea.

Asombraron a todo el mundo, cuando en el programa "Got Talent" de Telecinco, interpretaron una versión flamenca de la canción "Txoria txori", consiguiendo el aplauso de público y jurado. Después de eso, han sacado un disco, "Sonakay denontzat", en el que, además de temas propios, se pueden encontrar cuatro versiones de canciones vascas: "Loretsoa" de Benito Lertxundi, "Lehenengo ikasgaia" de Urko, "Denborareki" de Pier Paul Berzaitz y, la anteriormente citada, "Txoria txori" de Mikel Laboa. Y es que, hay que decir que estos donostiarras están orgullosos, tanto de ser vascos, como de ser gitanos, y para ellos fundir sus dos almas es algo natural. Y sí, son un ejemplo de integración, pero ante todo son unos excelentes, a los que da gusto oír.

**BESTE EKINTZA BATZUK**

- **Pumori Filma:** Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, 2019/01/25, 20:00
- **Inauteri jaia:** herriko hainbat alkarteek antolatuta, 2019/03/02
- **BBK bertso sariketa:** 2019/03/14
- **Zinegoak, Bilbao LGTB film festival** 2018/03/15, 20:00
- **Zuhaitz eguna:** data zehazteko
- **San Josetako Bertso Saioa.** 2018/03/19, 18:00 (bertsolariak aurrerago zehaztuko dira).
- **Mendi Amesgarriak,** Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, 2019/03/22 eta 2019/03/29

Ekintza hauen inguruko informazio gehiagorako jo www.igorre.net helbidera
Para más información acerca de estas actividades, consulta la página www.igorre.net

ARRATIA POSTA TXARTELEAN

2019/02/01—2019/02/28

AURKEZPEN EKITALDIA:

2019ko otsailaren 1ean, arratsaldeko 19:00etan


Erakusketa hau Arratia posta txartelean, 2014. urtean Jon Urutxurtuk argitaratutako liburuan oinarritzen da eta bere helburua Arratia eta arratiarren irudiak azaltzen diren posta txartelak ezagutzera ematea da. Kronologiari dagokionez, XX. mendearen hasieratik 1950eko hamarkadara arte editatu diren posta txartelak biltzen dira. Beharbada ez dira egongo denak; gehienak bai, ordea. Eta lan honen ondorioz Arratiari buruzko beste posta txartelen bat azaltzen bada, ongi etorria izango da, gure ondare ikonografikoa aberasten lagunduko baitu. Gaurkoa ulertzeko eta etorkizunean aurrerantz egiteko, garrantzitsua da iragana ezagutzea, eta erakusketa honek horretan lagundu nahi du, Arratiako ondare historikoaren atal bat berreskuratuz eta ezagutzera emanez.

ACTO DE PRESENTACIÓN:

1 de febrero de 2019, a las 19:00 horas

Esta exposición está basada en el libro Arratia posta txartelean, publicado por Jon Urutxurtu en el año 2014 y pretende dar a conocer las tarjetas postales donde aparecen imágenes de los municipios y gentes del valle de Arratia. Con respecto a la cronología, se han recopilado postales que fueron editadas hasta los años 50 del siglo XX. Posiblemente no estén todas, pero sí la mayoría. Y si a partir de este trabajo se da pie a que salgan a la luz más postales, bienvenidas serán ya que ayudarán a enriquecer nuestro patrimonio iconográfico. Para entender el presente y para avanzar hacia el futuro, es importante conocer el pasado, y esta exposición intenta poner un grano de arena en esa labor, mediante la recuperación y difusión del patrimonio iconográfico de Arratia.





Gu be bai Runners

Gu be bai runners
(korrika egiteko emakume taldea).
Martitzen eta eguenetan
18:00etan Igorreko kiroldegian.

Grupo de running de mujeres:
a las 18:00 en el polideportivo de Igorre

ANDRA MIGRATUEN TOPAGUNEA (Igorren, ARRATIAKO ANDREEN JABEKUNTZA ESKOLAREN barruan)
Arratian bizi diran andra migratu guztiak gura doguz gonbidatu topagunean parte hartzean. Igorreko Kultur Etxean eta bertan gure ongizate emozionala landuko dogu, migratzeak dakarren esperientziaren aukerak eta zailtasunak zehaztuko doguz. Gura badozu migratu dabene beste andra batzuk ezagutu, jakin gura badozu zer egin zure ongizate emozionalaren alde, bizi zaran tokian sarea egin gura badozu, animatu eta etorri topagunera.

ENCUENTRO DE MUJERES MIGRADAS (ESCUELA DE EMPODERAMIENTO DE MUJERES DE ARRATIA en Igorre)
Queremos invitar a todas las mujeres migradas de Arratia a participar en los encuentros de mujeres que se van a desarrollar en la Casa de Cultura de Igorre. En cada encuentro trabajaremos en nuestro propio bienestar emocional, en reconocer las oportunidades y dificultades que aporta la experiencia de migrar. Si quieres conocer a otras mujeres que un día migraron como tú, si quieres conocer cómo puedes trabajar por tu bienestar emocional, si quieres hacer red en el lugar donde resides no dudes en animarte a conocer estos encuentros.

- **Irakaslea.** Miriam Herbón Ordóñez
- **Tokia.** Igorre. Kultur Etxea
- **Egunak:** Urritik maiatzera hilean bitan
Dos sesiones al mes de octubre a mayo:
Astearteetan 10:30etatik 12:30etara.
- **Antolatzailea:** Igorreko Udala

AHALDUNTZEA ANTZERKIAREN BIDEZ

Astelehenetan, 17:30-19:30. Informazio gehiago Igorreko Kultur etxean



EMPODERAMIENTO A TRAVES DEL TEATRO

Lunes de 18:00a 20:00. Más información en la Kultur etxea





DANTZA AFRIKARRAK

3 zapatu hilean 10:30-13:30
45€ errolatuak (3 hilabete)
55,50€ ez errolatuak (3 hilabete)



ARIKETA HIPOPRESIBOAK EJERCICIOS HIPOPRESIVOS

**1.Taldea: martitzena
18:00-19:00**
89,50€ eta 80,50€
**2.Taldea: eguztena
16:45-17:45**
70,50€ errolatuak (3 hilabete)/
79,50€ ez errolatuak (3 hilabete)



DESARROLLO DE LA AUTOESTIMA A TRAVÉS DE LA PLÁSTICA

2019/01/13-2019/02/16 (6 zapatu)
Prezioa: 105€. Aretoko bazkideak 90€



TXI-KUNG

Astelehenak / Lunes
Errolatuak 70,50€
Ez errolatuak 79,50€



YOGA: 3 Talde

**1.Taldea: astelehena eta
eguztena 18:30-20:00**
**2.Taldea martitzena eta
eguztena 18:15-19:45**
**3.Taldea: martitzena eta
eguztena 11:15-12:45**
30€ Hilean errolatuak
37,5€ ez errolatuak



ZIRKO IKASTAROA (AKROBAZIA AEREOAK)

1.Taldea: umeak martitzenak 16:40-18:00
2.Taldea umeak martitzenak 18:00-19:20
3.Taldea: gazteak martitzenak 19:20-20:40
60€ errolatuak (3 hilabete)
69€ ez errolatuak (3 hilabete)

LUDOTEKA

Orokorra
17:00 - 17:55
4-8 URTE (4 eta 5 urteko gela eta 1-2. maila)

18:00 - 19:55
4-8 URTE (4 eta 5 urteko gela eta 1-2. maila)

19:00 - 20:00
8-12 URTE (3-6. maila)

OHARRAK

- Lasarte Aretoko lagun txartelagaz (bazkideak) %15eko deskontua izango dute ikastaroetan.
- Prezioa hiruhilabete osoa.
- Ikastaroetan Igorren errolatuak lehentasuna izango dute.
- Ikastaroa aurrera ateratzeko gutxienez 6 pertsona egon behar dute taldean.
- Matrikula egiterakoan ordaindu behar da.



LITERATURA TAILERRA

Gidaria: Lutxo Egia

**Astelehen bat hilean
17:00-18:30**
Urtarriletik abendurarte 30€
Lasarte Aretoko lagun txartelagaz
dohainik



GET OUT (Déjame salir)

Zuzendaritza eta gidoia / Dirección y guión: Jordan Peele

Urtea: 2017

Lurraldea: AEB

Iraupena: 103 min.

2019/01/10 20:00

Chris, eta bere neska-lagun Rosentzat aita-amaginarrebak ezagutzeko momentua iritsi denez, gurasoak ezagutzeko asteburu pasa antolatu dute. Hasieran, Chris beldur da, gertu ezagutu behar dituen gurasoek beren arraza arteko harremana gaitzetsiko duten, baina asteburuan zehar gertaera arraroak jazotzen hasten diren heinean, laster konturatuko da hori bere arazorik txikiena dela.

Para Chris y su novia Rose ha llegado el momento de conocer a los futuros suegros, así que organizan un fin de semana en la casa de campo para que se conozcan. Al principio, Chris tiene miedo de que los padres que está a punto de conocer desaprobeen su relación interracial, sin embargo, pronto entenderá que ese es el menor de sus problemas, a medida que acontecimientos extraños comienzan a ocurrir durante el fin de semana.



120 BATTEMENTS PAR MINUTE (120 pulsaciones por minuto)

Zuzendaritza / Dirección: Robin Campillo

Urtea: 2017

Lurraldea: Frantzia

Iraupena: 143 min.

2019/02/07 20:00

Paris, 90ko hamarkadaren hasiera. Ekintzaile talde gazte bat kontzientzia sortzen saiatzen da HIESaren inguruan. Taldekide berri bat, Nathan, bere azken arnasa borrokan gastatzen duen Seanen erradikaltasun eta energiari harrিতa geratuko da.

París, principios de los años 90. Un grupo de jóvenes activistas intenta generar conciencia sobre el SIDA. Un nuevo miembro del grupo, Nathan, se quedará sorprendido ante la radicalidad y energía de Sean, que gasta su último aliento en la lucha.



ALANIS

Zuzendaritza / Dirección: Anahí Berneri

Urtea: 2017

Lurraldea: Argentina

Iraupena: 82 min

2019/03/14 20:00

Alanis prostituzioan aritzen da. Haur txiki baten ama da, eta lankide batekin batera –Gisela– bizi da apartamentu batean. Bertan hartzen ditu bezeroak ere, baina egun batean bi inspektorek etxea itxiarazi, eta Gisela atxilotuko dute pertsonen salerosketan aritzea leporatuta. Arraza anitzeko bere auzo bortitzean, Alanis aurrera egiten saiatuko da, aldi berean laguna eta semea zainduz. Egiten dakiena eskainiko du kalean, baina kaleak bere lege propioa izaki, Alanisek gogor borrokatu beharko du bere lekua lortze aldera.

Alanis ejerce la prostitución. Tiene un bebé y comparte con Gisela, una compañera, un apartamento en el que vive y atiende a sus clientes, hasta que dos inspectores municipales clausuran su hogar y se llevan a Gisela, acusada de trata. Desde su barrio multirracial y violento, Alanis intenta salir adelante, ayudar a su amiga y cuidar a su hijo. Ofrece en la calle lo que sabe hacer, pero hasta la calle tiene sus reglas y Alanis debe pelear por su lugar.

EL REGRESO DE BEN2019/01/26
ZAPATUA 22:002019/01/27
DOMEKA 19:30

Zuzendaria: Peter Hedges



Herraldea: Estatu Batuak
Urtea: 2018
Iraupena: 103 min.
Aktoreak: Lucas Hedges, Julia Roberts, Kathryn Newton, Emily Cass McDonnell, Courtney B. Vance, Tim Guinee, Faith Logan...

+12

Ben Burns Gabon-gauan bere familiaren etxera itzultzen da. Holly Burns amak ongietorria egingo dio, eta laster semea ondo ez dagoela ohartuko da. 24 orduetan beraien bizitza aldatu daiteke, eta Holly bere familia aurrera ateratzen ahaleginguduko da.

Ben Burns (Hedges) regresa a casa en la víspera de navidad. La madre de Ben, Holly Burns (Roberts), le da la bienvenida, pero rápidamente se da cuenta de que está sufriendo. Durante unas 24 horas que pueden cambiar sus vidas, Holly hará todo lo posible para evitar que la familia se derrumbe.

Oharra: Hurrengo filmen barri izan gura badozu, galdetu Igorreko Kultur Etxean edo begiratu www.igorre.net
Nota: Si quieres información sobre las próximas películas, pregunta en Igorreko Kultur Etxea o entra en www.igorre.net

**STUBBY,
UN HÉROE MUY ESPECIAL**2019/01/27
DOMEKA 17:00

Zuzendaria: Richard Lanni



Herraldea: Estatu Batuak
Urtea: 2018
Iraupena: 85 min.
Generoa: Animazioa

+7

Robert Conroy gazte militarrek, gerrarako entrenatzen duen kanpamentuan txakur txiki bat aurkitzen duenean bere bizitza nola aldatzen den ikusten du. Heziketa militarrik ez izan arren, txakurra abenturan murgiltzen da, Robert eta soldadu frantsesen ondoan borrokatuko duelarik.

El joven militar Robert Conroy ve cómo su vida cambia cuando encuentra a un pequeño perro en el campamento donde entrena para la guerra. A pesar de no tener formación militar, el perro se embarca en la aventura, donde luchará junto a Robert y las tropas francesas antes de hacer historia.

MI VECINO TOTORO2019/02/03
DOMEKA 17:00

Zuzendaria: Hayao Miyazaki



Herraldea: Japon
Urtea: 2019 (1988ko reedizioa)
Iraupena: 86 min.
Generoa: Animazio fantastikoa

Bi umeren istorioa kontatzen du, Satsuki eta Mei, herri batera euren aitarekin bizitzera joan direnak, ama inguruko ospitalean gaixotasun larri batetik errekuperatzen den bitartean. Basoan, Satsuki eta Mei izaki bereziak daudela konturatzen dira, basoko izpirituak, bihotz garbia duten gizakiek baino ezin dituztenak ikusi. Mei, bere ama ikustera joaten saiatzen denean galdu egiten da eta Satsukik Totorori, basoko erregeari, laguntza eskatzen dio bere ahizpa txikia topatzeko.

Esta historia animada del director Hayao Miyazaki sigue a las estudiantes y hermanas Satsuke y Mei mientras se establecen en su casa de campo con su padre y esperan a que su madre se recupere de una enfermedad en un hospital del área. Cuando las hermanas exploran su nueva casa, descubren y hacen amistad con unos duendes juguetones, y en el bosque cercano encuentran a una enorme criatura conocida como Totoro.

Oharra: Hurrengo filmen barri izan gura badozu, galdetu Igorreko Kultur Etxean edo begiratu www.igorre.net
Nota: Si quieres información sobre las próximas películas, pregunta en Igorreko Kultur Etxea o entra en www.igorre.net

BOHEMIAN RHAPSODY2019/02/03
DOMEKA 19:30

Zuzendaria: Bryan Singer



Herraldea: Estatu Batuak
Urtea: 2018
Iraupena: 103 min.
Aktoreak: Rami Malek, Gwilym Lee, Lucy Boynton

+12

70eko hamarkada da. Freddie Mercury abeslariak, Brian May gitarraistak, Roger Taylor bateria-jotzaileak eta John Deacon baxu-jotzaileak Queen izeneko rock banda britainiarra sortu zuten. 1975ean, Bohemian Rhapsody abestiaren eskutik, nazioarteko musika-agertokiaren lehenengo planora igaroko ziren. Filma bandak musikaren Olinpora eginiko gorakada izugarriaren kronika da, euren abesti ikonikoen eta soinu iraultzailearen bidez, Mercuryk Brian Mayrekin eta Roger Taylorrekin bat egin zuenetik Wembley estadioan 1985ean eginiko Live Aid kontzertu erraldoira arte, Mercuryren heriotza goiztiarra baino sei urte lehenago.

Son los años 70. El cantante Freddie Mercury, el guitarrista Brian May, el baterista Roger Taylor y el bajista John Deacon forman la banda británica de rock Queen. Sería en 1975 cuando su sencillo Bohemian Rhapsody les colocaría en un primer plano de la escena musical internacional. El filme es una crónica del meteórico ascenso al Olimpo de la música de esta banda, a través de sus icónicas canciones y su revolucionario sonido, desde que Mercury se uniera a Brian May y Roger Taylor, hasta el macroconcierto Live Aid de 1985 en el estadio de Wembley, seis años antes de que Mercury muriera de forma prematura.

DANTZA**2019/02/09**
ZAPATUA 22:00**2019/02/10**
DOMEKA 19:30

Zuzendaria: Telmo Esnal



Herraldea: Euskal Herria
Urtea: 2018
Iraupena: 98 min.
Aktoreak: Amaia Irigoyen, Gari Otamendi, Ainara Ranera, Joseba Astarbe...

Ekaizta lehertu da landako lan egun gogor baten ondoren. Atertu duenean, bizitza erne da lehen agor zen lurretik. Fruitu bat hazi eta heldu da, bizirik

28 eutsi die izurrien erasoei, eta sagardoaren bizigai izango den sagar bihurtu da. Orduan, uzta ospatzeko tenorea da, topa egitekoa eta maitasunaren festan murgiltzekoa. Bizitzaren zikloari buruzko istorio bat, bizirik irauteko borrokarena. Horretan, denboraren iragatea naturaren ibilbideak markatuko du. Eta dantza da hori kontatzeko hautatutako hizkuntza. Musikak eguneroko zereginei lagunduko die. Bizitza erritmoa da!

Estalla la tormenta tras una dura jornada de trabajo en el campo. Cuando la lluvia amaina, brota la vida de la tierra antes yerma. Un fruto crece y madura, sobrevive al ataque de las plagas y se convierte en la manzana que da vida a la sidra. Llega entonces el tiempo de celebrar la cosecha, de brindar y festejar el amor. La música acompaña las rutinas cotidianas; ¡La vida es ritmo!

Oharra: Hurrengo filmen barri izan gura badozu, galdetu Igorreko Kultur Etxean edo begiratu www.igorre.net.
Nota: Si quieres información sobre las próximas películas, pregunta en Igorreko Kultur Etxea o entra en www.igorre.net

**ASTERIX EDABE
MAGIKOAREN SEKRETUA****2019/02/10**
DOMEKA 17:00

Zuzendaria: Alexandre Astier, Louis Clichy



Herraldea: Frantzia
Urtea: 2018
Iraupena: 86 min.
Generoa: Animazio fantastikoa

EUSKARAZ

Zuhaitz batetik bestera mihura bila ari dela, halako batean, Panoramax druida lurrera erori da. Han etzanda hausnartzen hasi da. Orkatila bat bihurtitu du, baina askoz okerragoa izan

zitekeen! Berak ezin balu, nork prestatuko luke neurrigabeko indarra ematen duen edabe magiko garrantzitsua? Asterixek eta Obelixek lagunduta, Galia osoan zehar bidaiatuko du druida trebe baten bila, hari edabe magikoaren errezetaren sekretua helarazteko asmoz, bere herrikkaren etorkizuna ziurtatzen.

Después de sufrir una caída por preparar alegremente entre los árboles en busca de muérdago, el druida Panoramax comienza a reflexionar... Ha llegado la hora de jubilarse y buscar un sucesor apropiado. Su objetivo será entonces encontrar un joven druida que sea digno de aprender todos los secretos sobre la preparación de la poción mágica que confiere una fuerza sobrehumana. En esta nueva aventura, Astérix y Obélix estarán a su lado, y emprenderán la búsqueda de un joven talento por toda la Galia. Eso sí, los romanos, aprovecharán esta situación para ponérselo difícil.

**SPIDERMAN
UN NUEVO UNIVERSO****2019/02/17**
DOMEKA 17:00

Zuzendaria: Bob Persichetti, Peter Ramsey, Rodney Rothman



Herraldea: Estatu Batuak
Urtea: 2018
Iraupena: 117 min.
Generoa: Animazioa

+7

Kanadar jatorriko liburuzaina da Fiona, egun batetik bestera bere burua Parisera lekualdatzera behartuta ikusiko duena. Gertuko senide bakarra du izeba Marta, eta bere laguntza ematen ez badio,

zahar-etxe batera eramango dute gogoz kontra. Berarekin zeraman ekipaje guztia galduta, pentsa zezakenetik urrun, lurreratze sail samarra izango du protagonistak maitasunaren hirian. Gutxi balitz, gainera, Donekin egingo du topo...

En un universo paralelo donde Peter Parker ha muerto, un joven de secundaria llamado Miles Morales es el nuevo Spider-Man. Sin embargo, cuando el líder mafioso Wilson Fisk (a.k.a Kingpin) construye el "Super Colisionador" trae a una versión alternativa de Peter Parker que tratará de enseñarle a Miles como ser un mejor Spider-Man. Pero no será el único Spider Man en entrar a este universo, 4 versiones alternas de Spidey aparecerán y buscarán regresar a su universo antes de que toda la realidad colapse.

Oharra: Hurrengo filmen barri izan gura badozu, galdetu Igorreko Kultur Etxean edo begiratu www.igorre.net.
Nota: Si quieres información sobre las próximas películas, pregunta en Igorreko Kultur Etxea o entra en www.igorre.net

EL VICIO DEL PODER**2019/02/17**
DOMEKA 19:30

Zuzendaria: Adam McKay



Herraldea: Estatu Batuak
Urtea: 2018
Iraupena: 132 min.
Aktoreak: Christian Bale, Amy Adams, Steve Carell, Sam Rockwell...

+12

Istorio erreal baten kontaketa egiten du filmak. Dick Cheney burukrata ezagunaren bizitza oinarritzen da, bere bat-bateko hazkunde

profesionalean. Izan ere, isil-isilik eta George W. Bush presidentearen babespean, AEB eta, oro har, munduko gizon boteredunetako bat izatera heldu zen. Egun, oraindik, badira bere itzalaren arrastoak sumatzen dituztenak. Jaialdi eta erakusketetan ibilaldi xumea egin izanagatik, asteko harribitxia dugu hau. Ospatu berri diren Urrezko Globoen sari banaketaren protagonista nagusietako bat, alegia.

Explora la historia real sobre cómo Dick Cheney (Christian Bale), un callado burócrata de Washington, acabó convirtiéndose en el hombre más poderoso del mundo como vicepresidente de los Estados Unidos durante el mandato de George W. Bush (Sam Rockwell), con consecuencias en su país y el resto del mundo que aún se dejan sentir hoy en día.

LA FAVORITA

2019/02/23
ZAPATUA 22:002019/02/24
DOMEKA 19:30

Zuzendaria: Yorgos Lanthimos



Herrialdea: Ingalaterra

Urtea: 2018

Iraupena: 121 min.

Aktoreak: Olivia Colman,
Emma Stone, Rachel Weisz,
Nicholas Hoult...

+12

XVIII. mendearen hasiera. Ingalaterra eta Frantzia gerran daude. Anne erregina tronua okupatzen du baina bere osasun egoera alde batetik, eta bere izaera aldakorra bestetik, Lady

30 Sarah bere laguna da benetan gobernatzen duena. Hala baina, Abigail izeneko zerbitzari Berri bat agertuko da eta honen edertasunak Sarah liluratuko du. Abigail Sarahren laguntza izango du eta honek bere erro aristokratikoetara itzultzeko aukera ikusiko du. Sarahk bere denbora gehiena politikari eskainiko dionez, Abigail Erreginarekin gero eta denbora gehiago emango du. Erreginarekin adiskidetasuna bere handinahiak asetzeko baliatuko ditu.

Principios del siglo XVIII. Ingalaterra está en guerra contra Francia. Una reina debilitada, Anne (Olivia Colman), ocupa el trono, mientras que su amiga Lady Sarah (Rachel Weisz) gobierna en la práctica el país en su lugar, debido al precario estado de salud y al carácter inestable de la monarca. Cuando una nueva sirvienta, Abigail (Emma Stone), aparece en palacio, su encanto seduce a Sarah. Esta ayuda a Abigail, la cual ve una oportunidad para regresar a sus raíces aristocráticas. Como la política ocupa gran parte del tiempo de Sarah, Abigail empieza a acompañar con más frecuencia a la reina.

LA GRAN AVENTURA DE LOS LUNNIS Y EL LIBRO MÁGICO

2019/02/24
DOMEKA 17:00

Zuzendaria: Juan Pablo Buscarini



Herrialdea: Espainia

Urtea: 2019

Iraupena: 83 min.

Generoa: Animazioa

Irudimena eta fantasiaren munduak arrisku larrian daude, eta Mar protagonistaren eskuetan egongo da horiek salbatzea. Liburu eta istorio zale amorratua da Mar, eta

aitonak kontatutako ipuinekin ikasitakoarekin gaizkia garaitzeko adina dakiela pentsatuko du. Merlin aztia, Pinotxo pampina, Oz lurraldeko magoa, Hamelingo flauta jolea, Perez Sagutxo... haurren irudimeneko pertsonaia guzti horiek izango ditu bidaide.

La Imaginación y el Mundo de Fantasía están en peligro. Mar, una niña de 8 años experta en cuentos y leyendas gracias a los libros que su abuelo le lee cada noche, decide intentar salvarlos con la ayuda de sus amigos Los Lunnis y juntos deberán evitar su desaparición. El malvado Crudo odia la fantasía porque carece de imaginación y pretende acabar con el Libro Mágico que contiene todas las historias inventadas por la Humanidad, del que es guardiana Lucrecia. Para conseguir su propósito, Los Lunnis y Mar deberán entrar en el libro y ganar a Crudo y su fiel servidor, un dron llamado Alfred, en una carrera a través de los cuentos más populares.